

## TOKI ADMINISTRAZIOA

3

## ADMINISTRACIÓN LOCAL

**IDIAZABALGO UDALA***Iragarkia*

Idiazabalgo Udaltzabaz, 2017ko martxoaren 23an egindako ezohiko bileran, besteak beste, erabaki du, aho batez, hedabideetan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak hasieraz onartzea. Iragarkia argitaratu zen 2017ko apirilaren 25eko datan Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN (78. zk.ian). Jendaurreko erakustaldiaren epea igaro da inolako alegaziorik aurkeztu gabe; hortaz, testua argitaratzen da azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikulua eta erabakiak berak adierazitakoarekin ados.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesdunek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez dezakete Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean.

Idiazabal, 2017ko maiatzaren 30a—Alkate-udalburua.  
(4043)

*Hedabideetan euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak.*

## HITZAURREA

10/1982 Legeak, azaroaren 24koak, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, euskararen normalizazioa arautzen du, hau da, euskara gizarte-funtzio guzti-guztiak betetzeko gauza izan dadin beharrezko prozesua abian jartzea.

Apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak erakunde publikoen normalizazio-prozesuak garatzen ditu, eta, euskara zerbitzurako hizkuntza izate aldera, bere ezarpen-eremua administrazioek eurek barne-erabilera arautzeko egiten dituzten plangintzetara mugatzen du,

2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeak buruzkoak, 7. artikuluan, udalei ematen die, eskumen propio gisa, bere eskuduntzako zerbitzu eta jardueretan euskararen erabilera sustatzeko eta euskararen normalizazioa planifikatzeko eskumena. Era berean, udalei ematen die, eskumen propio gisa, hartatik eratortzen diren ahalmen eta funtzioekin, beren lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzeko eta erabilera dinamizatzeko eskumena, horretarako zerbitzuak eta jarduerak zuzenean antolatuz, edo beste pertsona edo erakunde batzuek euskara sustatu eta dinamizatze aldera burutzen dituzten jardueren finantzaketan lagunduz. Horren 17. 26 artikulua zehazten du udalerriek honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak: «Euskararen erabilera sustatzeko udal-planak idatzi, onartu eta kudeatzea».

Euskararen biziberritze eta normalizazioaren helburuarekin, bere esparru guztietan eta, aldi berean euren eguneroko bizitza euskaraz egin nahi duten bizilagunei aukera hau bermatze aldera, Idiazabalgo Udalak, 2015-2019 Kultura, Kirola eta Eus-

**AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL***Anuncio*

El Ayuntamiento-Pleno de Idiazabal, en sesión extraordinaria celebrada el 23 de marzo de 2017, ha adoptado, entre otros, por unanimidad, el acuerdo de aprobación inicial de las Bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para promover la presencia y uso del euskera en medios de comunicación. El anuncio se publicó con fecha 25 de abril de 2017 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa (n.º 78). Transcurrido el plazo de exposición pública sin haberse presentado alegación alguna, se procede a la publicación del texto conforme al artículo 9.3 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y a lo establecido en el acuerdo.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

Idiazabal, a 30 de mayo de 2017—El alcalde-presidente.  
(4043)

*Bases reguladoras del otorgamiento de subvenciones para promover la presencia y uso del euskera en medios de comunicación.*

## PREÁMBULO

La Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de normalización del uso del Euskera, regula la normalización del euskera, entendida como un proceso cuyo objetivo final es que el euskera sirva para cumplir todas y cada una de las funciones sociales.

El Decreto 86/1997, de 15 de abril, regula los procesos de normalización de las entidades públicas y circunscribe su ámbito de aplicación a los planes de uso de carácter interno con objeto de que el euskera sea lengua de servicio.

El artículo 7 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, atribuye a los municipios, como propia, la competencia para el fomento del uso del euskera y la planificación de su normalización en los servicios y actividades que correspondan a su esfera de atribuciones. Asimismo, atribuye a los municipios, como propia, la competencia, con las facultades y funciones que de ella se derivan, para fomentar el conocimiento y dinamizar el uso del euskera en su ámbito territorial, ya sea mediante la prestación de actividades y servicios a estos fines o mediante la colaboración en la financiación de actividades de fomento y dinamización del euskera realizadas por otras personas o entidades. El artículo 17. 26 concreta que los municipios podrán ejercer competencias propias en los siguientes ámbitos materiales: «Planes de normalización, ordenación y gestión de las políticas de fomento y uso del euskera».

Con objeto de dinamizar e impulsar la recuperación y la normalización del euskera en todos los ámbitos y, al mismo tiempo, posibilitar la opción de los/as vecinos/as que desean realizar su vida cotidiana en euskera, el Ayuntamiento de Idiazabal, a

kara Planaren bitartez euskararen aldeko hizkuntza politika sustatzen du ondo bereiztutako bi esparrutan:

1) Euskararen ikaskuntzaren sustapenerako ekintzak, bizilagunen zerbitzu edota behar komertzialei erantzuteko «ad hoc» zerbitzu berriak kontratatuz, bizilagunen euskara ikasteko eta alfabetizaziozako eskubidea bermatuz, eta neurri handi batetan ikasketa gastuak finantzatuz herrian bertan zein kanpoan.

2) Bere erabileraren eta hedapenaren sustapena esparru sozial eta kultural guztietan, nahiz herri mailan (familia transmisioari arreta berezia jarrita guraso elkartearen bitartez eta gazteen aisialdiari) zein eskualde mailan (medioetan, publizitatean eta literatur edo kultur sorkuntzan bere normalizaziorako udal eta udalaz gaindiko planak egiteko datuak eskainiz).

Bigarren erroaren esparruan, Idiazabalgo Udalak, diru-laguntzak ematea erabaki du, norgehiagokan, euskararen erabilera hedabideetan sustatzeko eta indartzeko ondoren aipatzen diren hitzetan.

#### OINARRI ARAUTZAILEAK

##### 1. Xedea.

Oinarri-arau hauen xedea da diru-laguntzak ematea norgehiagokan Goierri eskualdean euskara modu eksklusiboan erabiltzen duten hedabideei.

Sustatu, garatu, sendotu eta normalizatu nahi dute euskararen presentzia idatzizko prentsan, telebista, irrati eta on line hedabideetan. Euskarazko hedabideekin lotutako enpresa, erakunde edo elkarte pribatuentzat zuzendua.

##### 2. Onuradunak.

1. Oinarri arautzaile hauek arautzen dituzten diru laguntza, baldintza hauek betetzen dituztenek eskatu ahal izango dituzte:

- Erakunde pribatua izatea.
- Helbide soziala eta jardute eremua Goierri eskualdean edukitzea.
- Hedabidean euskara soilik erabiltzea.

2. Eskatzaileei ez diete eragin behar Idiazabalgo Ordenantza Orokorraren, 4. artikuluan ezarritako debekuren batek.

3. Diru laguntzen onuradun izateko debekuek eragiten ez dietela egiaztatze aldera, diru laguntzaren eskaerarekin batera erantzukizunezko adierazpena aurkeztu ahal izango dute, deialdiarekin batera argitaratuko den ereduaren arabera.

Edonola ere, zerga obligazioak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatze aldera, dagokien organoek egindako ziurtagiriak aurkeztu behar dituzte; edo horren ordez, baimena eman ahal izango dute espresuki informazio hori aipatu organoek zuzenean Kultura, Kirola eta Euskara Departamentuari laga diezaioten.

##### 3. Zer agiri aurkeztu behar den.

- Diru laguntza eskatzeko orria, eredu normalizatuari jarraituz behar bezala beteta.
- IFZren fotokopia eta estatutuen kopia.
- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria.

través del Plan 2015-2019 de Cultura, Deporte y Euskara impulsa una política lingüística a favor del euskera con dos ámbitos diferenciados:

1) El desarrollo de actuaciones de promoción del aprendizaje de euskera contratando, nuevos servicios «ad hoc» a las necesidades comerciales o de servicios de los/as vecinos/as y garantizando el derecho a la alfabetización y aprendizaje del euskara de los/as vecinos/as, financiando, en gran medida, los gastos del aprendizaje tanto en centros del municipio como fuera.

2) El fomento de su utilización y difusión en todos los ámbitos sociales y culturales, tanto a nivel municipal (prestando especial atención a la transmisión familiar a través de los colectivos de padres/madres y al ocio de los jóvenes) como comarcal (contribuyendo a su presencia en los medios de comunicación, publicidad y producción literaria o cultural así como ofreciendo datos para la elaboración de planes de normalización municipales y supramunicipales).

En el marco de la segunda línea, el Ayuntamiento de Idiazabal, promueve la concesión de subvenciones, en régimen de concurrencia competitiva, con objeto de promover y consolidar el uso del euskera en medios de comunicación en los términos que a continuación se indican.

#### BASES REGULADORAS

##### 1. Objeto.

Es objeto de las presentes bases la concesión de ayudas económicas en régimen de concurrencia competitiva a medios de comunicación que empleen el euskara de manera exclusiva.

Pretenden fomentar, desarrollar, fortalecer y normalizar la presencia del euskara en la prensa escrita, televisión, radio y en los medios de comunicación on line, estando dirigida a empresas, entidades o asociaciones privadas relacionadas con medios de comunicación en euskera.

##### 2. Beneficiarios/as.

1. Podrán solicitar las subvenciones que se regulan por las presentes bases reguladoras, los que cumplan los siguientes requisitos:

- Ser una entidad privada.
- Tener sede social y ámbito de actuación en la comarca de Goierri.
- Emplear el euskera de forma exclusiva en el medio de comunicación.

2. Los/as solicitantes no deberán incurrir en ninguna de las prohibiciones del apartado 2 del artículo 4 de la Ordenanza General de Subvenciones de Idiazabal.

3. La acreditación de no incurrir en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria de las subvenciones se realizará mediante la presentación de una declaración responsable que se acompañe a la solicitud de subvención, según el modelo que se publique junto con la convocatoria.

En todo caso, para acreditar el cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social, deberán aportar los correspondientes certificados emitidos por los órganos competentes; o, en su caso, dando expresamente autorización para que sea dicha información sea objeto de cesión al Departamento de Cultura, Deporte y Euskara.

##### 3. Documentación a presentar.

- Instancia de solicitud de subvención debidamente cumplimentada de acuerdo con el modelo normalizado.
- Fotocopia del NIF y de los estatutos.
- Certificado de titularidad de cuenta corriente.

– Zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egoteko egiaztagiria.

– Proiektu edo memoria.

#### 4. *Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

1. Eskaera aurkeztu ahal da erregistro elektronikoa, erregistro-gaietako laguntzarako bulegoetan, posta bulegoetan erregelamenduz ezartzen den moduan, edo indarrean dauden xedapenetan ezarritako beste edozein tokitan.

2. Erregistro elektronikoa aurkeztuz gero, eskatzaileak erabili beharko ditu sinadura elektronikoa edo pasahitza. Eskaera eta harekin joan behar duen dokumentazioa internet bidez aurkeztu behar da Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa (<https://www.idiazabal.eus>) dagoen diru laguntzen atarian sartuta.

3. Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaera orri normalizatuak eskuragarri egongo Idiazabalgo Udalaren egoitza elektronikoa (<https://www.idiazabal.eus>) eta Kultura, Kirol eta Eus-kara departamenduen web orrian.

4. Eskatzaileek ez dituzte jada Idiazabalgo Udalak badi-tuen dokumentuak aurkeztu beharko, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 28. artikuluan, aurreikusitakoari jarraiki.

Deialdiak izango du nahitaezko eskaera-orri normalizatuak, ematen den informazioa automatikoki egiaztatzeko administrazioaren beraren edo beste administrazio batzuen sistematan biltegiatutako datuekin, edo formularioa guztiz edo partez bete-rik eskaini ahaliko duena, interesdunak informazioa egiazta dezan edo, hala badagokio, alda eta osa dezan.

5. Eskaerak aurkezteko epea urteko deialdian ezarriko da.

#### 5. *Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria aurkeztea.*

Eskaerak edo horrekin batera doan dokumentazioak ez baditu identifikazio datuak biltzen, akatsen bat badu edo zer-bait falta bada, eskatzaileari eskatuko zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, 68. artikuluan ezarritakoari jarraiki, hamar eguneko epean akats horiek zuzentzeko; eta adieraziko zaio ezen, hori egingo ez balu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatu legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan.

#### 6. *Emateko prozedura.*

1. Diru laguntza hauek elkarrekiko lehiakortasun jardunbi-deaz emango dira.

2. Laguntzak emateko prozedura ofizios hasiko da, deialdi publiko bidez. Deialdia organo eskumendunak onartuko du eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN eta Diru laguntzen Datu- Base Nazionalen argitaratuko da.

#### 7. *Irizpideak eskaerak baloratzeko.*

Irizpide eta puntuazio hauek aplikatuko dira:

- Finantzaketa propioaren maila; 15 puntu bitarte.
- Emititutako programazioaren interes kultural eta soziala, euskararen erabilera soziala hedatzearen aldetik, oinarri hauen esparruaren eta helburuen ikuspegiaren barnean; 15 puntu bitarte.
- Herri edo eskualde mailako informazioaren esparruan ikuspegi edo gai berritzaileetan murgildutako programazioa izatea; 15 puntu bitarte.
- Sexuen arteko berdintasunaren ikuspegi ongi landua izatea; 15 puntu bitarte.

– Certificado de estar al corriente en el cumplimiento de obligaciones tributarias y de la Seguridad Social.

– Proyecto o memoria.

#### 4. *Forma y plazo de presentación de solicitudes de subvención.*

1. La solicitud podrá presentarse en el registro electrónico, en la oficina de asistencia en materia de registros, en las oficinas de correos o en cualquier otro que establezcan las disposiciones vigentes.

2. En caso de presentarse en el registro electrónico, el solicitante deberá utilizar la firma electrónica o la clave operativa. La presentación de la solicitud y la documentación complementaria vía Internet se realizará a través del portal de subvenciones ubicado en la sede electrónica del Ayuntamiento de Idiazabal (<https://idiazabal.eus>) y en la página web en el apartado de Cultura.

3. La información de cada convocatoria y los impresos normalizados de solicitud estarán disponibles en la sede electrónica del Ayuntamiento de Idiazabal (<https://idiazabal.eus>) y en la página web en el apartado de Cultura.

4. Las personas solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder del Ayuntamiento de Idiazabal, de conformidad con lo previsto en el artículo 28 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre.

La convocatoria incluirá modelo normalizado de solicitud obligatorio que podrá incluir comprobaciones automáticas de la información aportada respecto de datos almacenados en sistemas propios o pertenecientes a otras Administraciones u ofrecer el formulario cumplimentado, en todo o en parte, con objeto de que el/la interesado/a verifique la información y, en su caso, la modifique y complete.

5. El plazo de presentación de solicitudes se fijará en la convocatoria anual.

#### 5. *Subsanación y documentación complementaria.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá al/la solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en el plazo de diez días, subsane los defectos detectados, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21 de ese mismo texto legal.

#### 6. *Procedimiento de concesión.*

1. La concesión de las subvenciones se efectuará en régimen de concurrencia competitiva.

2. El procedimiento de concesión de las ayudas se iniciará de oficio, mediante convocatoria aprobada por el órgano competente publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa y en la Base Nacional de Datos de Subvenciones.

#### 7. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

Los criterios objeto de aplicación y puntuación son los siguientes:

- Nivel de autofinanciación; hasta 15 puntos.
- El interés cultural y social de la programación emitida, desde el punto de vista de la extensión del uso social del euskera, dentro del ámbito y objetivos de las presentes bases; hasta 15 puntos.
- El desarrollo de una programación que aborde fórmulas o temas innovadores en el ámbito de la información local o comarcal; hasta 15 puntos.
- El grado de inclusión de la perspectiva de igualdad entre sexos; hasta 15 puntos.

e) Emititzen den programazioan ikus-entzule gazteei emandako arreta; 10 puntu bitarte.

f) Diruz lagundutako jarduerak jarraitasuna izango duela ziurtatzeko jarritako bitartekoak; 10 puntu bitarte.

g) Emititzen den programazioa forma eta kalitate aldetik landua izatea; 15 puntu bitarte.

h) Proposatutako proiektuak jardun eremu bereko jardun publiko eta pribatuekin koordinatzea, betiere udalerrian beste erakunde publiko edo pribatu batzuek jardunaren xedeari eskaintzen dioten estaldura maila kontuan izanik, eta sare lana indartuta; 5 puntu bitarte.

Ebaluazio batzordearen ebazpen proposamenean jasoko dira, bakar-bakarrik, aurreko irizpideen arabera 50 puntu edo gehiagoko balorazioa lortzen duten proiektuak.

8. *Diru laguntza banatzeko aplikatu beharreko baremoa eta zenbatekoaren muga:*

Diru laguntzaren zenbatekoa izan ahalko da aurreikusitako kostuaren % 100.

Diru laguntza hauetarako xedatutako kopuruak ez badu, hautatutako eskaera guztiak multzoan hartuta, aipatutako gehienezko muga horretara iristeko biderik uzten, diru laguntza bakoitza proportzioan murriztuko da, proiektuaren aurrekontua eta balorazioan lortutako puntuazioa kontuan hartuta.

Ezingo da izan landu beharreko jardueraren edo programaren kostua baino handiagoa.

#### 9. *Finantzaketa.*

1. Hala badagokio, eman daitezkeen diru laguntzak deialdiaren urteko Idiazabalgo Udalaren Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du diru laguntzak aurrekontuko zein kredituren kargurakoak izango diren.

2. Oinarri hauen xede diren diru laguntzak xede bereko beste diru laguntza, laguntzak, sarrera edo baliabide batzuekin bateragarriak izango dira, edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatuk emandakoekin, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeak izanda ere; betiere ez bada dagokion jarduketaren kostua gaintzitzen, eta horren inguruan beste diru laguntzak arautzen dituzten araudiek ezar dezaketenen kalterik gabe.

3. Oinarri hauetan araututako diru laguntzen zenbatekoak ezin du inola ere gaintzitu diruz lagundutako jardueraren kostua, ez berak bakarrik, ez beste diru laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera.

4. Diru laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan edozein aldaketa gertatuz gero, eta nolahi ere, oinarri hauetan baimendutako kasuez kanpo diru laguntza hauekin batera laguntzak jasoz gero, gerta daiteke diru laguntza emateari buruzko ebazpena aldatzea.

5. Oinarri hauetan erregulatutako diru laguntzak ez dira estatu laguntzak Europar Batasunaren Funtzionamendu Itunak 107.1 artikuluan ezarritakoaren arabera. Izan ere, onuradunak ez dira jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten enpresak. Horrenbestez, aipatu Itunak 108.3 artikuluan xedatzen duen jakinarazpen prozeduratik salbuetsita daude laguntza hauek.

#### 10. *Diru laguntzen zenbatekoa.*

Diru laguntzaren zenbatekoa eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioaren arabera finkatuko da, aurrekontuan erabiltzari dagoena eta 7. oinarrian ezarritako balorazio eta kuantifikazio irizpideak kontuan izanda.

e) La atención prestada en la programación emitida al público joven; hasta 10 puntos.

f) Los recursos puestos para asegurar la continuidad de la actividad subvencionada; hasta 10 puntos.

g) El grado de calidad técnica y formal de la programación emitida; hasta 15 puntos.

h) La coordinación de los proyectos propuestos con las actuaciones públicas y privadas que concurren en el mismo ámbito de actuación, teniendo en cuenta el grado de cobertura del objeto de la actuación en la localidad por parte de otras entidades públicas o privadas y potenciando el trabajo en red; hasta 5 puntos.

Pasarán a formar parte de la propuesta de resolución de la comisión evaluadora aquellos proyectos que, conforme a los criterios precedentes, obtengan una valoración igual o superior a 50 puntos.

8. *Baremo a aplicar para el reparto de la subvención y límite de la cuantía.*

— La subvención podrá ser igual al 100 % del coste previsto.

— En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dicho límite, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente en cada caso, en función del presupuesto del proyecto y de la puntuación obtenida en la valoración.

— El importe de las subvenciones no podrá, por sí sólo, ser superior al coste de la actividad o programa presupuestado.

#### 9. *Financiación.*

1. Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Ayuntamiento de Idiazabal del año de la convocatoria. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

2. Las subvenciones objeto de las presentes bases serán compatibles con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales, siempre que no se rebase el coste de la actuación subvencionada, y sin perjuicio de lo que al respecto pudiera establecer la normativa reguladora de las otras subvenciones concurrentes.

3. El importe de las subvenciones reguladas en estas bases en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

4. Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención y, en todo caso, la obtención concurrente de otras aportaciones fuera de los casos permitidos en las presentes bases, podrá dar lugar a la modificación de la resolución de concesión.

5. Las subvenciones reguladas en estas bases no constituyen ayuda estatal en los términos del artículo 107.1 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea, dado que sus beneficiarios no son empresas que desempeñen actividades económicas; en consecuencia, estas ayudas quedan excluidas del procedimiento de notificación previsto en el artículo 108.3 de dicho Tratado.

#### 10.<sup>a</sup> *Cuantía de las subvenciones.*

El importe de la subvención se fijará con arreglo a la documentación aportada por la entidad solicitante, teniendo en cuenta las disponibilidades presupuestarias y los criterios de valoración y de cuantificación establecidos en la base 7.<sup>a</sup>

**11. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.**

1. Diru laguntza hauek emateko prozedura bideratzea Kultura, Kirol eta Euskara Departamentuari egokituko zaio.

2. Eskaerak Kultura, Kirol eta Euskara departamenduko langileria teknikoak aztertuko du, eta, behar izanez gero kanpoko adituen laguntzarekin (deialdiak hala jasotzen badu) balorazio txostena egingo du. Txosten hori diru laguntzetarako eratu den Batzorde Ebaluatzaileari igorriko zaio, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuko duen ebazpen proposamena egin dezan; eta, ondoren, eskumena duen organoari aurkeztuko zaio onar dezan.

Batzorde Ebaluatzailearen burua izango da Alkate-Udalburua edo horren ordezkaria.

Kideak izango dira udal talde bakoitzeko ordezkari bat (eta, bere kasuan, zinegotzi ez atxikitua).

Idazkari jardungo du Kultur departamenduko teknikariak.

**12. Diru laguntzak emateko ebazpena.**

1. Alkate-Udalburua izango da oinarri hauetan bildutako diru laguntzak ematea ebazteko eskumena duena.

2. Behar den ebazpena eman eta argitaratu edo jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da; epe hori dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik aurrera kontatuko da. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi edo argitaratu, eskatzaileek eskaera ezetsitatzeko joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

**13. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak.**

1. Onuradunek diru laguntzak onartzeak eragiten du, iaera orokorrarekin, Idiazabalgo Diru laguntzen Ordenantza Orokorrak ezarritako betebeharrak betetzea.

2. Onuradun batek ez baditu osorik edo behar bezala betetzen aurreko puntuko betebeharrak edo oinarri hauen arabera onuradun gisa bete beharreko gainerakoak, egokitzen zaion diru laguntza dagokion proportzioan gutxitzea edo itzuli beharreko zenbatekoa zehaztea ekar dezake.

— Onuradunek % 100 euskaraz jardungo dute eta bultzatuko dute euskararen presentzia eta erabilera dagokion hedabidean.

**14. Onuradunen beste betebeharrak.**

Onuradunen beste betebeharrak dira:

— Idiazabalgo Diru laguntzen Ordenantza Orokorrak eta diru laguntzen alorrean dagoen gainontzeko indarreko araudia.

— Diruz lagundutako ekintzak edo jarduerak finantzaketa publikoa izan dutela publizitatea egitea: dela laguntza eman duen entitatearen irudi instituzionala sartuz; dela finantzaketa publikoari buruzko legendak jarritz jantzetan edo materialak, bitarteko elektronikoa edo ikus-entzunezkoetan; dela diru laguntza hedabideetan aipatuz.

— Komunikazio, argitalpen, programa, ikastaro eta abarretan hizkeraren berdintasunezko erabilera bermatzea; emakumea diskriminatzen duten irudiak saihestea; eta berdintasunaren, aniztasunaren, askotariko eginkizunen eta erantzunkidetasunaren irudia sustatzea.

**15. Diru laguntzen ordainketa.**

Oro har, diru laguntzak ordainduko dira diruz lagundutako jarduerara amaitu eta hori behar bezala egiaztatuta ostean 16. oinarrian ezarritakoari jarraikiz.

**11.ª Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.**

1. La instrucción del procedimiento de concesión corresponderá al Departamento de Cultura, Deportes y Euskera.

2. Las solicitudes serán analizadas por el personal técnico del Departamento de Cultura, Deportes y Euskera, que, con la eventual asistencia de personas expertas externas (si así lo prevé la convocatoria), elaborará un informe de valoración de las mismas, informe que será sometido a la Comisión Evaluadora que se constituya, la cual, a su vez, emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y que será elevada al órgano competente para su aprobación.

La Comisión Evaluadora será presidida por el/la Alcalde-Presidente o persona en quien delegue.

Los vocales serán un/a Concejala/a por cada grupo municipal (y, en su caso, Concejala/a no adscrito/a).

Actuará como secretario/a: el/la técnico/a del departamento de Cultura.

**12.ª Resolución de concesión.**

1. El/la Alcalde-Presidente será el órgano competente para resolver la concesión de las subvenciones contempladas en estas bases.

2. El plazo máximo para dictar y publicar o notificar la resolución que corresponda será de seis meses. El plazo se computará desde la publicación de la correspondiente convocatoria en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado o publicado la resolución, las entidades interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

**13.ª Obligaciones y compromisos de los/as beneficiarios/as.**

1. La aceptación de la subvención por parte de los/as beneficiarios/as implica la sujeción a las obligaciones establecidas con carácter general en la Ordenanza General de Subvenciones de Idiazabal.

2. El cumplimiento parcial o insuficiente de las obligaciones señaladas en el apartado anterior, así como de cualesquiera otras que incumban a los/as beneficiarios/as en virtud de lo dispuesto en las presentes bases, podrá determinar el reintegro total o parcial de la subvención.

— Los/as beneficiarios/as deberán efectuar sus actividades 100 % e impulsar la presencia y el uso del euskera en los medios de comunicación correspondientes.

**14.ª Otras obligaciones de los/as beneficiarios/as.**

Son otras obligaciones de los/as beneficiarios/as:

— Las establecidas en la Ordenanza General de Subvenciones de Idiazabal y demás normativa vigente en materia de subvenciones.

— Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de las actividades o actuaciones objeto de subvención, mediante la inclusión de la imagen institucional de la entidad concedente, así como leyendas relativas a la financiación pública en ropa o materiales, medios electrónicos o audiovisuales, o bien en menciones realizadas en medios de comunicación.

— Garantizar el uso igualitario del lenguaje en todas las comunicaciones, publicaciones, programas, cursos, etc.; evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres y fomentar una imagen con valores de igualdad, diversidad, pluralidad de roles y corresponsabilidad.

**15.ª Pago de las subvenciones.**

Con carácter general, las subvenciones se abonarán a la financiación de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base 16.

Dena den, egiaztatzen bada diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa dela, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira diru laguntza emateko ebazpenean ezarritako moduan.

Entitate onuradunek zerga eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak bete izana egiaztatzeko agiri eguneratuak aurkeztu beharko dituzte, ordainketak egin ahal izateko; edo, agiri horiek aurkeztu ordez, espresuki baimena eman ahal izango dute informazio hori zuzenean Kultura, Kirol eta Euskara Departamentuari eman diezaioten organo eskudunek.

#### 16. Diru laguntzen justifikazioa.

1. Idiazabalgo Diru laguntzen Ordenantza Orokorraren 16. eta 17. artikuluek eta otsailaren 16ko 50/2017 Alkatetza Dekretu bidez onartutako zuriketa kontuak eta jarraibideek aurreikusitakoaren arabera egingo da.

2. Memoria eta zuriketa- kontua aurkeztuko dira deialdiak aurreikusitako datan.

#### 17. Diru laguntzen itzulketa.

1. Onuradunak ez baditu oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintza eta betebeharrak guztiak betetzen, diru laguntza jasotzeko eskubidea guztiz edo zati batean galdutzat joko zaio, eta diru laguntza osoa edo zati bat eta dagozkion berandutza interesak itzuli beharko ditu, Idiazabalgo Diru laguntzen Ordenantza Orokorraren 20. eta 21. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz; eta hortik ondorioztaturiko erantzukizunei ere aurre egin beharko die, arau horren 22. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoari jarraikiz.

2. Ez-betetzeak mailakatzeko proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira: eta egindako jarduera guztien eta jasotako zenbatekoaren arteko proportzioaren arabera kalkulatuko dira.

3. Emandako laguntzaren zenbatekoa, bakarka edo bestelako administrazio publikoen edo erakunde publiko nahiz pribatu, estatuko zein nazioarteko, diru laguntzekin edota bestelako laguntzekin batera, handiagoa bada onuradunak aurrera eraman beharreko jardueraren kostua baino, itzuli egin beharko da egindako jardueraren kostuz gainetik eskuratutako diru kopurua.

#### 18. Araudi aplikagarria.

Oinarri hauen xede diren diru laguntzei, bertan ezarritakoaz gain, honako hauek aplikatuko zaizkie: Idiazabalgo Diru laguntzen Ordenantza Orokorra; azaroaren 17ko Diru laguntzen Lege Orokorra eta hori garatzeko emandako 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa eta diru laguntzaren arloan aplikagarria den gainontzeko araudia.

#### 19. Indarrean sartzea.

Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharramunean sartuko da indarrean.

No obstante lo anterior, y previa acreditación por el/la solicitante de la necesidad de financiación para llevar a cabo las actuaciones inherentes a la subvención, podrán realizarse pagos anticipados en la forma en que se determine en la correspondiente resolución de concesión.

Para poder realizar dichos pagos, las entidades beneficiarias deberán presentar la documentación actualizada del cumplimiento de las obligaciones tributarias y de Seguridad Social; o, en su lugar, podrán autorizar expresamente la cesión de dicha información al Departamento de Cultura, Deportes y Euskera por parte de los órganos competentes.

#### 16.ª Justificación de las subvenciones.

1. Se efectuará con arreglo a lo previsto en los artículos 16 y 17 de la Ordenanza General de Subvenciones de Idiazabal y conforme al modelo de cuenta justificativa e instrucciones generales para proceder a la justificación aprobadas por Decreto de Alcaldía 50/2017, de 16 de febrero.

2. La memoria y cuenta justificativa definitiva deberá ser entregada en la fecha prevista en la convocatoria.

#### 17.ª Reintegro de las subvenciones.

1. El incumplimiento por parte de la entidad beneficiaria de cualquiera de los requisitos y obligaciones establecidos en las presentes bases y demás normativa aplicable, dará lugar a la declaración de la pérdida total o parcial del derecho a la percepción de la subvención y a la obligación de reintegrar ésta total o parcialmente, junto con los intereses de demora correspondientes, conforme a lo dispuesto en los artículos 20 y 21 de la Ordenanza de Subvenciones de Idiazabal y a las responsabilidades que de ello pudieran derivarse, según lo dispuesto en el artículo 22 y siguientes de dicha norma.

2. Para graduar los incumplimientos se utilizarán criterios de proporcionalidad, que serán estimados en función de las acciones realizadas respecto a la totalidad de las mismas y a los importes percibidos.

3. Cuando el importe de las subvenciones o ayudas otorgadas, aisladamente o en concurrencia con las de otras concedidas por administraciones públicas o entes públicos o privados, estatales o extranjeros, exceda del coste de la actividad a desarrollar por la beneficiaria, se procederá al reintegro del exceso obtenido sobre el coste de la actividad desarrollada.

#### 18.ª Normativa aplicable.

Las subvenciones objeto de las presentes bases se registrarán, además de por lo dispuesto en las mismas, por la Ordenanza General de Subvenciones de Idiazabal, la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, de Subvenciones y su reglamento de desarrollo aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, y demás normativa aplicable en materia de subvenciones.

#### 19.ª Entrada en vigor.

La presente norma entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.